

ERBESTEARI BURUZKO NAZIOARTEKO X. BATZARRA

ERBESTEA NORBERAREN IKUSPUNTUTIK

-Bigarren gutuna-

Deustuko Unibertsitateak eta Hamaika Bide Elkarteak antolatuta

Datorren urtean zehar, gerra zibilaren bukaeraren hirurogeita hamar urteurrena dela eta, gerraren oroimenak zein erbestea gogora ekartzeko eta ikertzeko ekimen ugari antolatzen ari dira. Horien lema orokorra **Hirurogeita hamar urte eta gero** izango da. Marko horretan guk Bilbon eta Donostian “Erbestea norberaren ikuspuntutik” Nazioarteko Batzarra antolatu nahi dugu.

Lekua: Bilbo-Donostia

Datak: 2009ko urriaren 5, 6, 7 eta 8

**Batzarraren tokiak: Deustuko Unibertsitatea Bilbon (CRAI)
eta Deustuko Unibertsitatea Donostian**

- **Lerro tematikoak:**

“Erbestea norberaren ikuspuntutik” erbesteratuen subjektibitateak idatzitako testuak ikertzeko aukera zabala ematen digu: autobiografiak, memoriak, egunerokoak, gutun bildumak, deserriko poema bildumak, oroimenak eta testigantzak, e.a. Dokumentu horiek berreskuratzeak edota ezagutzen direnen azterketak pertsonaren bizipenak zuzenean ezagutzeko aukera ematen digute; horretarako, gure ustez, ezin hobeak dira aipatutako genero literarioak. Besteak beste, hauek izan daitezke ikertzeko gai batzuk: haurtzarora eta heziketa erbesteratuen, diasporaren politikarien diskurtso biografikoak, emakume idazleak, euskal emakume erbesteratuen memoriak, memoriaren testigantzak, e.a. Batzar honetan bai euskal erbesteratuen zein, orokorrean, errepublikarrarena izango dute tokia. Batzarrean aztertuko diren zenbait pertsonalitate hauexek dira: Semprún, M^a Teresa León, Champourcin, Camprubí, Chacel, Blanco Aguinaga, Larrea, Baroja, Orixe, Aguirre, Irujo, Gurrutxaga, Manu de la Sota, Elizondo, Zaitegi, Ibiñagabeitia, Ibarruri, Aurora Arnaiz, María Luisa Elio, e.a. Batzarra egiten den bitartean Federico Alvarez irakasleari omenaldia eskainiko zaio.

- **Batzorde Zientifikoa:**

- Manuel Aznar Soler irakaslea (UAB)
- Gregorio Arrien aita (saioegilea)

- Luis de Llera irakaslea (Geneveko Unibertsitatea – Italia)
- Nigel Dennis irakaslea (Sain Andrews Unibertsitatea – Erresuma Batua)
- Juan Cano Ballestea irakaslea (Virginiako Unibertsitatea-EEBB)
- Jose Manuel Lopez de Abiada irakaslea (Bernako Unibertsitatea – Suitza)
- Gabriele Morelli irakaslea (Milango Unibertsitatea – Italia)
- Serge Salaün irakaslea (Paris IIIko Unibertsitatea – Frantzia)

- **Batzorde antolatzailea:**

- Jose Angel Ascunce irakaslea
- Jose Ramon Zabala irakaslea

- **Parte hartzeko eskaerak:**

Laburpena: Bertan proposamenaren izenburua eta, gehienez hamar lerroko testuan, ponentziaren helburua, asmoa eta gaiaren inguruan egingo den ekarpena azaldu beharko dira. Testuaren formatoa hauxe izango da: Times New Roman, 12 neurrikoa, 1,5 lerroartekoa.

Fitxa pertsonala: Bertan datu hauek azalduko dira: izen-abizenak, helbidea, kontaktu-telefonoa, posta elektronikoa, egoera akademikoa zein profesionala, ikertzailearen unibertsitatea edo instituzioa.

Informazio hauek helbide hauetara bidaliko dira: macillon@fil.deusto.es eta joxerrazabala@telefonica.net.

- **Proposamenak bidaltzeko azken data:**

2009ko maiatzaren 29 baino lehen. Egun horretarako batzorde antolatzailearen eskuetan ponentzia proposamenaren laburpena eta ikertzailearen fitxa egon beharko dira.

Batzarrak partehartzaile kopuru mugatua izango du. Kopurua mugatzeko laburpenak bidali diren datak zein Batzorde Antolatzailearen iritzia hartuko dira kontutan.

- **Izena emateko ordainsaria:**

Ordainsaira 175 eurokoa izango da.

Horrekin gastu hauek ordaintzen dira: parte hartzearen ziurtagiria, bazkariak (afariak ez daude barne), bukaerako ospakizuna, Guggenheim Museora joateko autobusa eta batzarraren aktak.

- **Ostatuak eta lekualdatzeak:**

Antolatzaileek Bilbon Batzarraren tokitik gertu dauden hoteletan aurreikusi dute parte hartzaileen alojamendua. Horietan eskainiko diren prezio berezien aukera izateko beharrezkoa da erreserba Deustuko Unibertsitatean dagoen bidaia agentziaren bidez egitea; hauek dira kontatuaren helbidea: Carlson Wagonlit Travel España. Phone +34 94 446 70 57 | fax +34 94 446 73 18. Unibertsitatearen Ibilbidea, 24 | 48007 Bilbo| Spain. E-mail : deustobio@carlsonwagonlit.es. Arduraduna: Carmen Sanchez anderea.

Prezio orientagarriak (aldatu daitezke):

NH DEUSTO HOTELA

Erabilera bikoitzaren banakako gela: 82 euro

Gela bikoitza: 115 euro

HESPERIA BILBAO HOTELA

Erabilera bikoitzaren banakako gela: 84 euro

Gela bikoitza: 93 euro

BARCELO NERVION HOTELA

Erabilera bikoitzaren banakako gela: 84 euro

Gela bikoitza: 105 euro

ERCILLA HOTELA

Erabilera bikoitzaren banakako gela: 105 euro

Gela bikoitza: 119 euro

MIRO HOTELA

Erabilera bikoitzaren banakako gela: 107 euro

Gela bikoitza: 114 euro

Tarifa guztietan BEZ eta gosaria barne.

Todas las tarifas llevan el iva y el desayuno incluido.

Deustuko Ikastetxe Nagusian badira ere gela batzuk. Telefonoa: +34 944 759 200. Email: colegiomayor@deusto.es

Donostiara joateko batzakideen desplazamendua autobusez egingo da, gauerako Bilbora itzuliz.

- **Web orrialdea:** www.hamaikabide.org